

08


2022ko maiatza



EKAINAK A BILBORA



ET GAITURIN
BILBORA



IRAKURGAIAK

- ▶ **Andoni Olariagak idatzitako “inozentzia kenduko dizuet” artikulua, bertan boteredunek egiten dituzten zenbait diskurtsoen arriskuaz hausnartzen da.**
<https://labur.eus/kvyW4>
- ▶ **Pello Zabarte eta Martin Loizate maiatzak 7ko mobilizazioaren arira epaituak izango diren gazteei Anbotok egindako elkarrizketa.**
<https://anboto.org/durangeldea/1653632501897-guganako-babesa-gazteon-bizi-bal-dintza-duinen-aldeko-bultzada-bihurtzea-gura-genuke>
- ▶ **Espainiako Erregea Espainiara itzuli izanaren testuinguruan Iñaki Iriondok naizen idatzitako artikulua**
<https://bit.ly/3wCBTWL>
- ▶ **Berriak Maddi Ane Txoperena idazle gazteari egindako elkarrizketa, berak idatzitako “Ez erran inori” liburuan jorratzen duen umeen sexu abusuen gaiaren inguruan**
<https://www.berria.eus/paperekoa/1857/030/001/2022-05-31/abusuen-gaia-landu-ahala-jende-as-ko-hurbildu-zait-ni-ere-bai-erratera.htm>



GOMENDIOAK

- ▶ **UEU-k aurtengo udarako antolatutako ikastaroak, gai ezberdinen inguruan ikasi, hausnartu eta eztabaidatzeko aukera ematen dutena**
<http://www.ueu.eus/ikasi/udako-ikastaroak>
- ▶ **EH Bilduk aurkeztutako “Euskal Eredua” txostena, lidergotza, gehiengo eta konponbide berriak mahaigaineratzeko helburuarekin.**
https://ehbildu.eus/herriak/konferentzia-munizipalista/dokumentuak/EU_1653576342.pdf

Irifia

EUSKARA AURRERA, GAZTEOK SARETZERA

Xabat Illarregi



Maiatzak 21ean Donostin gertatu zena ez zen euskara aurrera atera behar dela aldarrikatzen dugunaren adibide bat bakarrik. Gako eta errealtate askoren adierazle izan zen. Tuteran euskaraz bizitzeko oztopoak besterik ez dituen gazte bat, Lizeoan azterketak euskaraz egiteko borrokatzen ari den ikasle bat, Gasteiz edo Bilbon beren haurrak euskaraz bizi daitezen arnasmuneak bilatzen dituzten guraso bi edota Iruñean bizitza osoan herri mugimendu euskaldun batean lan eta lan aritu den heldu bat (besteak beste...) Donostian elkartu ziren egun, ordu, leku eta aldarri berdinetan. Bakoitzak bere errealtatetik bizi du euskara eta hamaika errealtate ezberdin edukitzeak berdintzen gaitu euskaraz bizi nahi horretan.

Ilusio horren hurrengo belaunaldia gu gara, gazteok. Lekukoa hartu dugu euskararen errealtate gordin eta gatazkatsuan, baina baita borrokarako

eta eraldaketarako nahian ere. Puntu horretatik abiatzen gara gazte euskaltzaleok. Egungo egoera kezkarriaren zama gure gain jartzen baldin badute ere, zama kendu eta ardura hartuko dugu gure gaitasunetik eta kritikotasunetik. Herri mugimendu euskaldun baten alde, bizi proiektu duin euskaldun baten alde, arnasmuneen alde, kultura euskaldunaren alde, hezkuntza euskaldunaren alde... Finean, egungo egoeraren aurka. Bakoitzak beretik eta bere helburu propioz bizi du euskararen aldeko aldarria, baina oinarrian, berdin egiten dituen proplematikak eta gogoia daude.

<< Lekukoa hartu dugu euskararen errealtate gordin eta gatazkatsuan, baina baita borrokarako eta eraldaketarako nahian ere >>

Hiru hilabete baino ez dira Gazte Euskaltzaleen Sarea aurkeztu zenetik, euskarari gatzetasuna eta gatzetasunari euskara txertatu nahian. Hamarkadetan egindako lanak jarraipen bat behar du, eta jarraipen bat du. Halere, beti behar da gehiago. Euskara den gurdiak pisua du, eta geroz eta jende gehiagok tira egiten badio, aurrera aterako da maldarik zorrotzenetan ere. Inork tira egin ezean, gurpilak lokatzetan itota geratuko zaizkio, gero eta zailagoa izanen delarik ateratzeko.

Hortaz, euskaraz hitz egin, ikasi, lan egin, eztabaidatu, harremandu, gozatu eta bizi nahi dugunok, badugu zer borrokatu. Hizkuntza politikak exijitzen segiko dugu eta ardura dutenak euskara lehen planoan jartzera behartuko ditugu, nola ez. Halere, guk, inorren zain egon gabe, guretik saretzen darraigu; hausnartuz kritiko izanez, alternatibak sortuz eta eraldaketara bidean segiz.

Orain dela urtebete, gazteen larrialdi egoera salatzen Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan mobilizatu ginen. Bilboko, Donostiako, Gasteizko eta Iruñeko kaleak burujabetza eta eraldaketa sozialaren aldarripean hartu genituen. **Gazteen egoera larriaren kontziente izan eta agintari politikoei urgentziakoz zenbait neurri exijitu genizkien, hauek Gasteiz eta Bilbon. Ertzaintzaren biolentziaz erantzun ziguten, guztira 60 zauritu baino gehiago eragin eta 8 gazte atxilotuz, bat Gasteizen eta gainontzeko zazpirak Bilbon.**

Eusko Jaurlaritzak beste behin ere Ertzaintzaren borrok erabili zituen gazteen bizi baldintza prekarioen gainean duen ardura estaltzeko. Izan ere, emantzipatzeko ezintasuna, lan kontratu prekarioak, hezkuntzaren pribatizazio eta

prozesuen prekarizazioa, harremantzeko espazioen ukazioa, gazteen osasun mentalen kaskartzea eta horren gaineko baliabide faltaren aurrean... **agintari politikoek**

<<Mugimendu sozial desberdinen aldarrikapenen aurrean Eusko Jaurlaritzak entzungor jarraitu eta kriminalizazioara jotzen du>>

beste alde batera begiratu zuten eta nahiago izan zuten poliziaren biolentzia borrokatzen dutenen aurka baliatzea benetako neurri eraginkorrak indarrean jartzea baino.

Urtebete pasa den arren, gazteen egoera ez da aldatu, are gehiago, okerrera egiten jarraitzen du. Inoiz baino prekarieztuagoak gaude, lanean esplotatuak, gero eta gutxiago dira hezkuntza ibilbidea modu duinean garatu dezaketenak, 30 urtetan kokatzen da emant-

zipatzeko batz besteko adina eta egun suizidioa da gazteen artean lehen heriotza kausa. Hau guztia gutxi balitz, instituzioen aldetik jasotzen dugun erantzuna ez da aldatu: aurreko urteko maiatzaren 7aren ostean ikusi bezala, mugimendu sozial desberdinen aldarrikapenen aurrean Eusko Jaurlaritzak entzungor jarraitu eta kriminalizazioara jotzen du. Eta bitartean guk, esplotatuak, etxe gabetuak eta baztertuak izaten jarraitzen dugu.

Irtenbide errealak hartzeko aldarrikatu eta berehalako neurriak exijitzera kalera irten ginean jipoituak eta atxilotuak izan ginen. Eta gaur, **gazteen larrialdi egoerak bere horretan jarraitzen eta okerrera egiten ari den honetan, Bilbon atxilotutako zazpi gazteak epaiketara deituta daude. Hamazazpi hilabete bitarteko espetxe zigor eskaerei zein 20.000 euro**



baino gehiagoko isun ekonomioei egin beharko diete aurre. Ertzaintzaren faltsukeriaz beteriko atestatuan oinarritutako muntaia polizial berri baten aurrean gaude, mugimendu

edota bizitzak bizigarriak izan daitezten alde artikulatu izanak batzen dituzte; ertz ezberdinetatik zapaltzen gaituen sistema arrakalatzeak, alegia. Hain zuzen ere hori da ekainaren

honek ezin gaitu eraman hura asimilatzerara, ezin dugulako onartu gazteon bizi baldintza duinen alde borrokatzeatik atxilotuak izatea. Bi aste barru bizi baldintza duinen alde borrokatzen dugun guztiak izango gara epaituak eta hain zuzen ere horregatik inoiz baino garrantzitsuagoa izango da borrokaren bidez erantzutea.



sozialen aldarrikapenen aurrean poliziak zein Eusko Jaurlaritzak sortutako beste muntaia bat alegia. **Hau ez delako kasu isolatu bat, mugimendu sozialen aurkako estrategia baten baitan ulertu behar dugu pairatzen ari garen kasu hau ere.**

Jazarpenaren hari luzeak batzen dituelako Bilboko San Francisco auzoko pertsona migratuen aurkako jipoiak, Tubacex, Alconza, ITP eta beste hainbat lantegitako kolpe, atxiloketa eta isunak; 2021eko martxoaren zortziko Iruñako kide feminista baten atxiloketa, metaleko eta Iruñerriko grebalarien aurkako prozesu judizialak, Aroztegia eta abar luze bat. Kasu, borroka eta egoera desberdinak izan arren, eskema berdina ikus dezakegu: borroka bat, honen aurkako poliziaren biolentzia, muntaia eta zigorrak.

Ez da kasualitatea. Kasu guzti hauek ez ditu jazarpenak soilik batzen, **bizi baldintza duinen aldeko borrokak, prekarietatera kondenatzen gaituen sistema honen aurrean altxatu**

hamabostean, muntaia berri baten ostean, epaituko dena; otzan ez mantentzea, egoera iraultzeko anbizioa eta grina izatea, gure bizitza duinen alde antolatzea eta borrokatzea.

Bakarturik, otzan eta menpeko nahi eta behar gaituzte, ahot-sik altxatu gabe, sistemaren erreprodukzioa bermatu dadin

<<Bizi baldintza duinen aldeko borrokak, prekarietatera kondenatzen gaituen sistema honen aurrean altxatu edota bizitzak bizigarriak izan daitezten alde artikulatu izanak batzen gaitu; ertz ezberdinetatik zapaltzen gaituen sistema arrakalatzeak>>

sistema jarraika. **Baina gu ez gaude konforme, eta ez dugu egoera onartzen, interes kolektiboen alde antolatzen gara, eta orduan atxilotu, auziperatu eta jipoitzen bagaituzte, sistema neoliberalaren egituraketa osoa kolokan jartzen dugulako da.** Eta horrek gure hautuan berrestera baino ez garama.

Gazte konprometituok eta orokorrean borrokatzen duen edonork gertutik ezagutzen dugu errepresioa eta hala ere,

Ez dugulako onartzen, borrokatzen jarraitzea besterik ez dugu. Gure bizitzak prekarizatzen zein haien poliziak gure aurka bidaltzen dituzten horiei, ez gaituzte geldituko oihukatzen diegun bezala, ez gaituztela gelditu erakustea dagokigu. Eguneroko lanaz, herri eta auzoetan, kaleak hartzen, alternatibak erakitzen, bizitzak erdigunean egongo diren beste mundu eta Euskal Herri posible hori irudikatu eta eraikitzen. Helburuak merezi baitu. Bide

horretan, ekainaren 4an kaleak hartzea dagokigu, jazarpenari kalean erantzun, gazte borrokak merezi duelako, ez gaituztela gelditu erakusteko unea heldu da.

Irifua

BIZKAIA HARI GORRIA

Maialen Cuevas eta Asier Zamorano

Memoriaren lanketa eta errelatoaren bataila bolo-bolo dabilen honetan, efemeride historikoei zelan begiratu eta hauek politikoki nola landu erronka bihurtu da ezker independentismoarentzat. Izan ere, oroimen ariketaz gain, -bere baitan balio politiko handia duena-, orainean eragin eta etorkizuna eraikitze-ko heldulekuak bilakatu beharko genituzke. Gertakariak objektiboak izan daitezkeelako, baina memoria ez. Memoria subjektiboa da, dinamikoa, egin eta desegiten dena. Etsaiak ondo daki hori eta horregatik tematuta dago azken hamarkadetan -eta mendeetan- Euskal Herrian emandako borrokaren inguruko irakurketa desitxuratzearekin. Guk garrantzi eta anbizio berdinetik heldu beharko genioke erronkari.

“Bizkaia Hari Gorria – Territorio de Luchas” herri dinamika ikuspuntu horretatik jaiotako ekimena da. Izan ere, aurten 85 urte betetzen dira Gernikako bonbardaketa sinbolo nagusi duen Bizkaiko Frontearen erorketatik. Faxismoaren aurka borrokatu zuen fronte errepublikar, abertzale, anarkista, sozialistak gogor ordaindu zuen egindako erresistentzia: heriotza, erbeste, errepresioa, 40 urteko diktadura. Horregatik bakarrik, belaunaldi horrek egindako borrokagatik bada ere, gertakari horiek oroitzea ezinbestekoa da.

Baina oroimenean soilik geratzen ez den dinamika izan nahi dugunez, historia garaikidearen fokoa zabaldu eta 37ko erresistentzia hamarkadetakako borroka kontakizun baten baitan kokatu dugu. Borroken lurraldean, Bizkaian, kokaleku baino subjektu propio eta aktibo gisa jokatu duena. Eta askotariko borroka horien artean lotura etengabea egin duena, hari gorria josiz, gaur egunera arte ekarri gaituena eta garaipenen ortzimuga berriak zabaltzeko aukera ematen diguna.

<<Memoria subjektiboa da, dinamikoa, egin eta desegiten dena>>

Ezinezkoa dugulako ulertzea egungo pensionistak, sindikalismo konbatiboa eta langile borroka ugariren indarra garaiko Bandas, Euskalduna edota Labe Garaien borrokarik gabe. Irabazitako Lemoizeko zentral nuklearraren aurkako protestak egungo euskal ekologismo eraberritu baten oinarria jarri duen bezala edota Basauriko 11en borroka hurrengo hamarkadetan zehar loratzen joango zen mugimendu feminista gorpuztu zuen bezala. Gure herriaren izaera eta borroka antifaxistan berresten gara, baina argi izanda gaurko eskuin muturrak dakartzan gorroto ideien aurrean, antifaxismoaren lubakiak xenofobia, arrazismoa, homofobia zein matxismoari aurre egin ez sortzen direla.

Hori guztia aldarrikatu eta ospatuko dugu Ekainaren 18an Bilbon egingo dugun ekimen nagusian. Izan ere, 85 urte eta gero borroka identitate eta praktika horri eustea, elikatzen jarraitzea eta etorkizunera proiektatzea bada ospatzeko arrazoi nahikoa. Sufritzen dakigunak bagarelako, historiak hainbat aldiz erakutsi digun bezala. Borroka irabazi zein galduen aurrean, mila eta bat aldiz altxatzen jakin izan dugula frogatu dugu. Ospatu dezagun, beraz, Zutik jarraitzen dugula eta aurrean garela oraindik ere.

